



Iritziak

Inbertsio publikoak mozkinak pribatizatzeke



**BALEREN BAKAIKOA
AZURMENDI**
EKONOMIALARIA

Ohiko teoria ekonomikoaren arabera, inbertsio pribatuak publikoak baino eraginkorragoak dira. Inbertitzaile pribatuak beraien enpresatan inbertitzen dute ekoizpena bizkortzeko eta ondorioz mozkin itxurosoak eskuratu ahal izateko. Alabaina, gauza bat da teoria interesatuak dioena eta beste bat errealitatean jazotzen dena.

Azkenaldian kasu bat baino gehiago daukagu teoria hori gezurtatzen duena. Izan ere, 2019ko maiatzean Narvartis enpresa farmazeutiko suitzarrak AEBetan *Zolgensna* botika komertzializatzeke baimena erdietsi zuen; botika horrek, saio bakar batekin, bi urte azpiko haur batentzat terapia genetiko ahalbidetzen du eta gihar atrofia hilkorra sendatu. Tratamendu berri hori oso eraginkorra omen da, alabaina, bere prezioa 2.125 milioi dolarrekoa da, hain juxtu, orain artean enpresa farmazeutiko baten saldutako botika garestiena.

Botika hau, bestalde, bi urte baino gutxiagoko haurrentzat da eta AEBetan urtero 400 bat kasu ematen dira, 11.000 jaiotzetatik haur batek izaten omen du gaixotasun genetiko hori. Anartean, gaur egun tratamendua badago, baina hamar urteren buruan jarraitu behar du tratamendu horrek eta lehen urtean 750.000 dolar kostatzen da eta hurrengoetan 375.000 dolar urteko. Beraz, oso garestiak bi kasuetan: botika berriarekin 2.125 milioi dolar eta lehengoarekin lau milioi inguru. Botika berriarekin, Nar-

Gure artean ere badago kasu bat: Euskaltel.

Euskaldunon diru publikoarekin negozioa eratu, fibra optikoa azpiegitura publikoa erabilia instalatu, bezeria lortu lehia faltsu baten amarruarekin...

vartisek urtean 2.400 milioi dolar eskuratu omen ditu.

Halaber, botika horren prezioak ez ditu islatzen berau ekoizteko kostuak. Erreferentzia gisa aurrez erabiltzen zen tratamenduaren gastuak hartu dira; eta beraz, ez dira kontuan hartu ikerketan eta bere garapenean burutu diren inbertsioak, kapital finkoan, alokairuetan...

Badirudi Narvartisek inbertsio handiak egingo zituela horrelako botika eskuratzeko, inbertitzaileak sarituak izan daitezkeen. Hala ere, ez da egia inbertsio erraldoiak burutu zirenik botika eraginkor hori asmatzeko. Izan ere, Narvartisen patentea Telethon frantziar laborategiak asmatu zuen eta diru publiko eta filantropikoekin finantzatu zen; dirutza hori telebistako programa batetik lortzen zen, ETBk antolatutako maratoiaren antzekotik.

Duela hogeita hamar urte Telethonek Genethon laborategia sortu zuen, zeinak aipatu gaixotasuna ikertu, garatu eta botika patentatu zuen. 2018an patente eraginkor hori AEBetako enpresa bati saldu zioten hamabost milioi dolarren truk eta enpresa estatu-batuarra, zortzi hilabete beranduago, Narvartisek 8.700 milioi dolarren truk eskuratu zuen!

Adierazgarria da gertakizun hau, gardenki ikusten baita diru publikoaren erabilaren emaitza esku pribatura nola joan den. Ekoizpen publikoa balitz, gizarte osoa profitatzeke izango litzateke, ez pribilegiatu batzuentzat: milioiok, ez jende xehea.

Gure artean ere badago kasu bat: Euskaltel. Euskaldunon diru publikoarekin negozioa eratu, fibra optikoa azpiegitura publikoa erabilia instalatu, bezeria lortu lehia faltsu baten amarruarekin, eta behin zuzendariak poltsikoak ederki bete ondoren, Zegona ingelesari saldu zitzaion. Eta orain jakin dugunaren arabera, azken hiruhilekoan hemeretzi milioi euro erdietsi zituen Euskaltelek, ongi etorriko liratekenak gure ongizatea hobetzeko. Horregatik, ulergaitza egiten zaigu zergatik Eusko Jaurlaritzak bere partaidetza saldu zuen, telekomunikazio enpresak oso estrategikoak baitira edozein herrialderentzat.

Kapitalaren morroiek horrela jokatzen dute. ●